

# CIKAUTXOko Kalitate politika

CIKAUTXO ko ordezkari nagusi gisa eta Enpresako langile guztien ekintzak CIKAUTXO ren hobekuntzara zuzentzeko xedez, honako Politika eratu dut:

CIKAUTXO bere bezeroei esker existitzen da. Beraz, Kalitatea **Bezeroarekin adostutako beharrak asebetetzean** datza, kosturik txikienean eta zerbitzu hoberena eskainiz. Hori dela eta, Bezeroaren zein araudi eta legeen baldintzak Enpresa guztian ezagutu behar dira eta horiek asebetetzen diren jakiteko ebaluaketak egin behar dira.

CIKAUTXOren **lehiakortasuna** nahitaezkoa da Enpresa merkatuan mantentzeko, eta horretarako ezarritako Kalitate Sistema, prozesuen etengabeko hobekuntzaren bidez, Bezeroaren asebetetzea lortzera zuzendu beharra dago, baita langileen asebetetzea eta Enpresaren baliabide globalen optimizazioa lortzera ere.


CIKAUTXOk **Etengabeko hobekuntzaren** alde apustu egiten du, **Prozesu bidezko kudeaketaren** bidez. Horretarako Plangintza, Gauzatzea, Ebaluaketa zikloa Kalitate Sistemaren parte izan behar da, gauzak ondo eta lehenengoan egiteko. 5S metodologia gure gakoa da helburuak lortzeko.

Kalitatea lanpostu bakoitzean ekoizten da, Enpresako edozein funtziotan, Bezeroaren beharrak identifikatzen dituen pertsonatik, produktuak bidaltzen dituen arte. Horrek enpresa osatzen duten pertsona guztien lankidetzeta eta konpromisoa suposatzen du, Kalitate Politika betetzea ahalbidetzeko.

Politika honetatik eratorritako **helburuak** ezartzea, urtean behin gutxienez.

Zuzendaria izan behar da bereziki Kalitatearen hobekuntzaren buru. Beraz, honetara engaiatzen naiz:

- Politika hau langile guztiei ezagutzera ematea.
- Kalitate sistemak ezarri, eta araudien eta bezeroen baldintzak betetzeko behar diren baliabideak eskaintzea.
- Bere ezarpenaren eta betetzearen zaintza eta Politika honetatik ondorioztatzen diren helburuen betetzea, gure prozesuen eraginkortasuna eta efikazia berrikusiz.
- Politika hau betetzea.

Zuzendaria  
  
Zuzendaria